

BALDEREN ITZULERA

Albisteak jada ez da paperak lortu dituela, baizik eta laster bukatuko zaizkiola

Abenduaren 28an abiatu zen Ibrahima Balde Ginearra. Goizeko ordu bietan iritsi zen. Bere herrixka, Thiankoi, 450 kilometrotara dago Konakry hiriburutik barrurantz, eta egun bat eta erdi beharko zuen hara heltzeko. Baina, ezustean, ama eta arrebak joan zitzaizkion aireportura. Berezia eta hunkigarria izan zen topaketa.

Elkartze horren emozio eta pozarekin, poliki-poliki hango egunerokotasunera jartzen ari da gaztea. Amaren osasun egoerarekin arduratuta dago. Arrebak aunitz luzatu dira agurtu zituenetik, duela ia hamar urte.

Amets Arzallus Antiak (Hendaia, 1983) harreman hurbila mantentzen du Ibrahimarekin. Hagitz hunkitua sumatu du laguna telefonoz. «Poz izugarria izan da berriz familiarekin elkartzea eta bere herrialdea ikustea. Kezkatuta ere badago. Herrialdearen egoera

ez da oso egonkorra, hori batez ere hiriburuan sentitzen da, eta momentuz han daude. Lehen ere ez zen erraza, baina duela hiru urte estatu kolpea egon zen, eta ordutik halako gobernu militar bat dago, trantsitorioa deitzen diotena baina irauten duena. Berak esan dit duela hamar urtetik egoera aldatu dela eta atzera egin duela iruditu zaiola».

Ibrahimak sarri erraten duen bezala, «etorkizuna planifikatzen» ari da. Oraindik ez daki zer egingen duen.

«Bere lekua han dago, etxe-koekin, bere herrian. Bakoitza bere herrian eta jaio den le-

 **JENDARTEA** / Maider IANTZI GOIENETXE

Ibrahima Balde (Ginea Konakry, 1994) bere jaioterrian dago, senide eta lagunekin, ia hamar urte ikusi gabe eman ondotik. Poz itzela izan da itzulera. Baina paperak lortzeko prozesu izugarria eta gero, garestia, luzea, bortitza, agudo bukatuko zaizkio. Berritu ezean, 'Miñan' liburuaren abiapuntu berean egonen da.

kuan egotea eta ahalko balitz bizi izatea ederra da. Kontua da ekuazio horri nola erantzun. Gauza asko daude airean», adierazi du Arzallusek.

LIBURUZ BETETAKO MOTXILA

Motxila ttiki batekin joan zen Balde, benetan beharrezko zituenak bakarrik eramanez, tartean bi adiskideek elkarrekin idatzi zuten "Miñan" (Susa, 2019) liburuaren itzulpen guztien aleak. Hor dit berekin eta izanen du zer kontatua, pixkanaka.

Agurra gazi-gozoa izan zen. «Alde batetik poza eta ilusio izugarria, Ibrahima berriz berak

alde egin nahi ez zuen leku hartara itzultzera zihoalako, bere etxekoengana. Bestalde, tristura puntua, harreman sakon bat delako eta oso barruko hari batek lotzen gaituelako. Hari hori ez da askatzen, luzatu egiten da pixka bat eta distantzia hartzen du. Hemengo jendea agurtzerakoan ere Ibrahimak tristura hori sentitu du, eta pena».

Azken momentuan agurtu ziren, aireportuan bertan. «Ni nahiko pertsona hotza naiz adierazkortasun aldetik, kostatzen zait eta korapilatuta egoten naiz; bera errazago laxatzen da eta hobeto adierazten ditu emozioak, horrek niri ere lagundu zidan deskorapilatzen. Agurra gertatzen da halako keinu azkar eta iheskor batzuetan, eta gero gelditzen zara zu zure buruarekin. Holako sentsazio malenkoniatsu bat gelditu zitzaidan; zimiko bat. Ederra ere iruditu zitzaidan. Bizipen bat izan da segitzen duena. Hari hori hor dago eta nik sentitzen dut».

Iritsi zenean eta etxekoekin argazkian ikusi zuenean, berekin hitz egin zuenean eta ongi harrapatu zuenean, han kokatua, jada ez atzera begira, pozik eta indartsu, Amets ere hola gelditu zen.

Ibrahima Balde, Amets Arzallus eta Frantzisko aita santua, iragan abenduaren 9an Vatikanon.
I. B.

ABIAPUNTUA

«Amets, ni European nago, baina ez nuen inondik inora etorri nahi», erran zionean, hendaia-rra ohartu zen guk zaku bakarrean sartzen ditugun pertsona horien artean istorio, bide, korapilo eta egoera anitzak dau dela. Zaku hori ireki eta gauzak bertze era batera ulertzen lagundu zion Ibrahimak. «Segur aski inork ez du Europara etorri nahi. Inportantea da esatea beren erabakimenez edo gogoz etorri direnak ere denak direla bere lurrari bularretatik kendu-



tako haurrak. Hori eta gero, esan dezagun Ibrahimarena kasu berezi bat dela, ez bakarra, baina bada erabakimen hori eduki gabe hona iritsitako pertsona baten kasua».

Horrek abiapuntu desberdin bat markatu zuen eta zentzu bat eman zion Alhassane Balde anaia txikiari (miñan, pularrez) eskainitako liburuari. Historia berezi bat, estilo bat, bien arteko harreman bat, hainbat osagai izan dira Ibrahimaren asilo eskaeran laguntzeko hasitako dosierra uste gabe liburu formara eraman dutenak.

Ekartzen dituzten hizkuntzak

Bertsolari eta idazlearen erronketako bat izan da bien arteko mugimendua, Ibrahimak deitzen dion bezala, izan zedila parez parekoa. Ez da erraza gauzatzen, bien abiapuntuak, adibidez sozioekonomikoa, hain desberdinak direnean. «Hori harremanaren bilakaeran lanketa luze bat da, batez ere zure aldetik. Bien artean nolabaiteko oreka bat bilatzeko moduak dira zu haren egoerara jartzea pixka bat eta ez bakarrik hura guregana ekartzea, erraztasunak eskaintzea baizik. Bestearen gabeziatik, ezinetatik ikastea, eta baita gaitasunetatik ere. Migrantea oso egoera zailean iristen da, esan beharrik ez dago, eta behar handiz josita, baina baita bere ahalekin ere».

Ibrahimaren kasuan gaitasunetako bat, mekanika eta eskulangintzaz aparte, ahoz-kotasuna eta literatura dira, Ametsek bera hizketan entzundakoan sentitu zuen hori. Hortik begiratzen ikastea izan da beretzat harremana orekatzeko modu bat. «Inportantea da pertsona horiengandik ikasten hastea, eta hizkuntza

ere trukatzeko pixka bat. Askotan esaten dugu ea migranteek nola eskaini euskara, baina gure erronka ere bada haiek ekartzen dituzten hizkuntzei nola eskaini leku bat. Harremanean hizkuntzak badu garrantzia pertsona konfort egoera batean sentitzeko, euskaldunok badakigu hori, eta Afrikatik iristen ikusi ditudan migranteek, nahiz eta gutxi edo gehiago frantsesez edo ingelesez jakin, beren hizkuntzak dakartzate, eta horiei leku bat egitea garrantzitsua da beren berreraikuntza psikologikorako eta autoestimurako. Lankidetzaren sareetan uste dut ez dela behar beste kontsideratzen dimentsio linguistikoa, kultural eta identitario hori. Guk Afrikako mapa ikusten

«Segur aski inork ez du Europara etorri nahi. Inportantea da esatea beren erabakimenez edo gogoz etorri direnak ere denak direla bere lurrari bularretatik kendutako haurrak»

«Hori eta gero, esan dezagun Ibrahimarena kasu berezi bat dela, ez bakarra, baina bada erabakimen hori eduki gabe hona iritsitako pertsona baten kasua»

Ibrahima Balde eta Amets Arzallus «Miñan» liburuen aurkezpenean, 2017. urtean.
Andoni CANELLADA | FOKU



dugun betaurrekoetatik aparte, bada beste mapa humano bat, eta hori inportantea da gauzak orekatzeko ere».

Irudimen bat

Ibrahima euskaraz pixka bat moldatzen da eta Ametsek pularrez hitz bakan batzuk egiten ditu. Halabeharrez, frantsesaren zubian egin dute topo, eta horrek bi herrien historiaz zerbait erran nahi du. Liburuaren oinarrian dauden elkarrizketa guztiak frantsesez gertatu dira. Ibrahimak badu halako frantsesez hitz egiteko modu berezi bat, beste hizkuntza eta kulturetatik datozen gehienek bezala, euskaldunok ere badugun bezala. Bere eskola-urte gutxi horietan ikasitako espresio jaso batzuk ditu Ibrahimak, eta gero kaleko hizkera bat, eta bi horiek josteko bere ama hizkuntzaren, pularraren, irudimen bat darabil, Arzallusen ustez.

«Irudimen horretatik fabrikatzen ditu bere jostura horiek frantsesez, batzuetan esaldi hautsi batzuk, eta frantses berezia ateratzen zaio. Bere ama hizkuntzaren irudimenak ematen dio askotan dimentsio poetiko bat, gisa batez esaten dira gauzak pula-

rez, eta gero hori itzultzean batzuetan sortzen du halako oihartzun bitxi bat eta lotura batzuk frantsesez existitzen ez direnak». Horri bere imajinario propioa gehitu behar zaio, bere deskribatzeko eta memoria antolatzeko modua.

Euskarazko maskara garden bat

Lagunaren ahots berezi hori euskarara ekartzea izan da idazlearen parte. «Hizkuntza aldaketak beti sortzen du partitura diferente bat, baina saiatu naiz tonua ahal zenean mantentzen eta ezin zenean harmonia bat edukitzen. Saiatu naiz euskarazko halako maskara garden bat egiten irakurleak Ibrahimak ikusteko zuzenean, eta hori bai izan da nire ariketa sortzailea: batzuetan hizkuntza puskatu, berriz josi...». Neurri batean haur bat bezala ibili da lur horretan, bilatuz eta forma berri batzuk emanez esaldi bati.

Liburu honen berezitasuna da pularrez pentsatua, frantsesez kontatua eta euskaraz idatzia dela. «Ez nuen nahi aduana gramatikal bat izan, ezta politiko bat ere, ez nuen bere tutore bezala agertu nahi, eta desagertzen ahalegindu naiz, pentsatuz, zoritxarrez, nahiko aduana pasako zuela bidean nik beste bat eranstea».

Historia latz baten testigantza ematen du «Miñan»-ek, jakin dezagun zer ari den gertatzen «geure begipean, guregandik ez hain urruti eta segur aski gure sosak tartean dauden Europaren inguruko gerriko bloke horretan». Aldi berean, ez du laztasun horrekin ikuskizunik egin.

Bi egile izateak orekatzen laguntzen du. Liburua Baldek idatzi du, ahoz, eta Arzallusek idatzi du, eskuz. «Ibrahimak historia hau bizi izan du zoriz gaitzez, berak kontatu du, eta

berak erakutsi du baita ere nola kontatu. Historia hau kazetaritza kronika hotzago bat izan zitekeen, baina kazetaritza kronikatik hartzen badu dimentsio literarioa, nola kontatu berak erakutsi duelako da, eta hori gakoa da».

ESAN GABE DOA

Marrazkiak ere bereak dira. Bere bizitzan egindako lehenengo marrazkiak. Historia hau kontatuz momentu batean irudiak egiten hasi zen, bere burua gogoratuz, eta irudi horiek badute indar bat. «Oso bereziak iruditzen zaizkit, oso gordinak aldi berean. Bere hitz egiteko estiloak bezala, badute haur baten aire bat, eta inozentzia dirudien horretan badago inteligentzia sakon bat. Hitzekin noraino irits zaitzekkeen kalkulatzeko gaitasuna eta nondik aurrera hobe duzun hitzak isilik utzi, isiltasun horrek esan zenitzakeen hitzek baino hobeto adierazten duelako zerbait. Ibrahimak pasatzen dituen bere memoriako gertakizunak, oso gordinak, eta gero airean uzten duenean, ez du epaitzen, ez du haserre keinurik egiten, badago hor inteligentzia bat, hemen nik puntu bat jarriko dut, eta hemendik aurrerakoa esan gabe doa».

MINARI LUR BAT

Liburua idaztea mingarria izan da, eta irakurtzea ere hala da. «Min hartzea ez da txarra eta min hori sentitzea humanoa da. Askotan nire buruarekin ibiltzen naiz borrokan: aktualitatea eta mundua sartzen zaigu begietatik, urrutiko zorigaitzak, ez hain urrutikoak, eta hori dena daramagu holako arintasun batez, non azkenean prestatuta gauden digeritzeko min han-

dirik sentitu gabe edo min teoriko, ideologiko batekin, ez hain organikoa. Uste dut gure kezka, haserreak, ideologiak eta hor dauden min teoriko-abstraktu guztiek behar dutela lur bat benetan sentitzeko gauzak hurbilago-tik eta gure burua ere pixka

bat humanizatzeko», aldarrikatu du. Beretzat ariketa hau min horri lur bat ematea bezalakoa izan da, eta jendeari lur bat eskaintzea ere bai.

Ibrahimaren kasuan, dauden zauriak artatzeko profesionalen laguntzaren behar handia ikusten du.

MUSULMANA, ATEOA, AITA SANTUA

Uste gabeko lekuetara eramandu liburu honek Balde eta Arzallus, eta ustekabekoenetakoa izan da Vaticanoa. Behin baino gehiagotan aipatu eta gomen-datu izan du aita santuak “Miñan”, eta Ibrahima bere herrira zihoala jakinda, erran



Ametz Arzallus eta
Ibrahima Balde, 2021ean
Bilbon egindako
elkarriketa batean.
Marisol RAMIREZ / FOKU

zien Erromatik pasatzen bazi-
ren beregana joateko. Hala bil-
du ziren iragan abenduaren
9an Frantziskorekin. «Ibrahi-
ma oso hunkitua eta nahiko
mutu, blokeatua pixka bat. Ge-
ro joan zen askatzen, eta ni
hortxe, korapiloa askatzen eta
hizketan. Honi eta hari buruz,

batez ere Ibrahimaz, bere fami-
liaz, Ginearako itzuleraz, Euro-
pako migrazio politika gero eta
gogorragoez. Justu Frantzia de-
bate horren erdian zegoen. Ai-
ta santuak Macronekin ezta-
baida izan zuen Marseillan, eta
geroztik Frantziak are lege go-
gorragoa onartu du eta Europa
ere orokorrean bide horretan
doa. Euskal Herriaz ere aritu gi-
nen. Ilusioa neukan erakuste-
ko liburu hau euskaraz jaio ze-
la eta izenburua pularrez
daukala, bi hizkuntza horiek
bere eskuetan eta liburutegian
egon zitezen nahi nuen».

PAPERAK LORTZEKO ODISEA

Fokupean egon ziren liburua-
rekin, baina, aldi berean, pape-
rak ezin lortuz. «Ez nuen seku-
la imajinatuko. Ibrahimaren
kasua berarekin bizituta eza-
gutu dut zer den paperik gabe-
ko pertsona bat erregulariza-
tzeko prozesua, edo zehatzago
izanda, odisea. Izugarria. Dena
prestatuta dago iritsi aurretik
amore emateko eta leher egi-
teko bidean, fisikoki, psikolo-
gikoki eta ekonomikoki».

«Asiloa ukatu eta paperik ga-
be gelditu zenean, erregulariza-
tzeko hurrengo zirikitua sus-
traitze soziala deitzen zaiona
zen: gutxienez hiru urte itxa-
ron behar dituzu, bizirauteko
behar dituzunak eginez, izerdi-
tuz edozein baldintzatan eta
abusu asko jasanez. Gero, behar
dituzu ezin konta ahala paper,
ez direnak batere errazak zure
herrialdetik ekartzen. Adibidez,
aurrekari penalen paperak hiru
aldiz ekarri ditugu. Zigiluak
behar dituzte, Gineako Kanpo
Ministeriokoak eta Espainiako
Konsulatukoak. Ez zituzten zi-
gilatzen, baina kobratu bai. Pro-
zesu honek ehunka eta batzue-
tan milaka euro balio du. Eta
bitartean, pertsonak biziraun
egin behar du. Sistema pertso-

na migratzaileez aprobetxa-
tzen da era guztietara, modu
izugarrian».

Liburuan pertsona baten
Afrikako iparralderako zehar-
kaldia kontatzen da, baina
egin zitekeen beste liburu bat
behin Europara iritsi eta gero-
ko erregularizatzeko odiseaz,
«ze luzea, konplikatuta, gares-
tia eta biolentoa den. Bortiz-
keria administratiboa da».

Zorionez bukaera bat izan
du, lau urte eta erdi pasa eta
gero. Ibrahima orain itzuli da
herrira, baina paperak udabe-
rrian lortu zituen, apirilaren
17an. Eskuratu dituen paperak
bizileku baimena deitzen dire-
nak dira, urtebeterako. Beraz,
heldu den apirilaren 17ra arte
dauka baimena espainiar Esta-
tuan kontratu eta gizarte segu-
rantzarekin lan egiteko eta
bertatik atera eta sartzeko. Bai-
men hori berritzea samurra-
goa izatea desio dute, baina
edozer espero dute. Apirilaren
17a baino lehen espainiar Esta-
tura itzuli eta lanean hasten ez
bada, zerotik hasiko da berriz.

Hortaz, paperak lortu izana
baino, paperak laster bukatu-
ko zaizkiola da notizia. «Lau
urte eta erdiko prozesu bat,
izugarria, garestia, luzea, bor-
titza, baldosa txiki horren gai-
nera iristeko. Eta baldosa txiki
horren gainetik pausoa nola
luza litekeen, ikusiko da. Hori
da gure sistema. Hala zabal-
tzen zaie atea egoera horretan
datozenei. Eduardo Gleanori
irakurri nion: garai batean
itsasontzi negreroek Atlanti-
koa zeharkatzen zuten, eta
gaur esklaboen trafikatzaileek
zuzenean operatzen dute Lan
Ministeriotik, eta, erantsiko
nioke, migrazio bulegoetatik».

HAGITZ ESKERTUA

Balde Euskal Herriarekin ha-
gitz eskertuta dago osasuna

**Bere hizkerak bezala, marrazkiek badute haur
baten aire bat, eta inozentzia dirudien horretan
bada inteligentzia sakon bat. Hitzekin noraino
irits zaitezkeen kalkulatzeko gaitasuna**

**«Gure kezkak, haserreak, ideologiak eta min
teoriko-abstraktu guztiek behar dute lur bat
benetan sentitzeko gauzak hurbilagotik eta
gure burua pixka bat humanizatzeko»**

berreskuratu duelako. Iritsi ze-
nean hernia bat zuen urdai-
lean. Oñatin zegoen min hori
jasanezina bilakatu zitzaio-
nean, eta Arrasateko ospita-
lean operatu eta tripako min
izugarria kendu zioten. Horre-
taz gain, oinazpietan arrastoak
zituen, bero handia egiten
zuenean loa galarazten zioten-
nak. Soraluzeko lagun bati es-
ker min hori asko goxatu zaio
eta lo egin ahal izan du, beroa
hobeki jasan eta aitzinera jo.

Hortzetako arazoak ere izan
ditu, eta begietakoak. «Deser-
tuan eguzkitan hain arrisku-
tsu ibili diren pertsonen erreti-
nan erredura bat gelditzen
zaie, nonbait sendatzen ez de-
na eta betaurrekoekin babestu
behar dena».

Ibrahimak Europaren eta
gure herriaren aurpegi desber-
dinak ezagutu ditu. Badu zeini
eskertua. Era berean, badaki
zeinek eman dion bertze tratu
bat, eta haien aurrean badaki
isilik pasatzen. Hitzek eta be-
giraden bidez jendea ezagu-
tzen ederki ikasi du.

Ametsek arrazoi on bat du
ezagutzen ez duen lurralde ba-
tera joateko. Ea lehenengo
Ibrahimak zer bide egiten
duen, eta horren arabera iritsi-
ko da eguna haren herria, in-
guruko jendea, hizkuntzak eta
kultura ezagutzeko. Sarbide
pribilegiatu bat izanen du, eta
bere buruari hitzematen dio
iritsiko dela Gineara.

